



MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Marca Españaren ahuleziak

AZKEN GARAI hauetan nazioarteko zenbait erakunderen ekonomia aurreikuspenak argitaratzen ari dira, hala nola Nazioarteko Diru Funtsarenak, (NDF) Ekonomia Lan-kidetza eta Garapenerako Antolakuntzare-nak (ELGA), BBVArenak, eta abar. Oro har, guztiek antzeko aurreikuspenak egin dituzte. Izan ere, herrialde gehienetan hazkunde tasa apalak izango dira eta Eurogunea, ziurrenik, atzeraldian sartuko da. Beraz, 2008tik hona, hirugarren uzkurraldia ezagutzeko zorian gaude.

Aurreikuspen horien arabera 2014an hazkunde tasa txikiak izango dira. Hain zuzen, Alemaniak %ko 1,4 izango du, Frantziako Estatuak hutsaren parekoa, %ko 0,4, eta Italiak %ko -0,4. Bada, herrialde horiek baldin badira Euroguneko motorrak, atzetik doazenek, horien artean Espainiako Estatua, uzkurraldia ez dute erraz saihestuko.

Azken finean, jende arruntak jasaten duen BEZ atzerakorra justifikatu besterik ez du egiten ELGak. Ail, zerga neurri horiek konpentsatzeko, enpresarien kotizazioak murriztu egin behar omen dira

Egoera kezkarri horren inguruan duela aste batzuk Mikel Zurbano adiskideak zenbait gogoeta interesgarri egin zituen zutabe honetan bertan, beraz, ez ditut errepikatuko. Hala ere, azpimarratu behar da, hirugarren uzkurraldi horren zergatia austeritate politika izan arren, Euroguneko agintari nagusiek ez dutela inolako autokritikarik egin, berean jarraitu nahi dute, nahiz eta NDFk ere bere kezkek azaldu politika anker horren inguruan.

Ikusirik austeritate politikak zer-nolako ondorio kaskarrak ekarri dituen Euroguneko herrialdeentzat, Espainiako ekonomia hartu dute erakusleho gisa. Izan ere, aurtun %ko 1,2 haziko ei da BPG eta %ko 1,6 datorren urtean. Hots, Espainiako Estatua ispilu! Besterik ezean, dagoenarekin justifikatu behar Angel Gurria ELGA-

ko idazkari nagusiak egiten duen lana edo dena delakoa.

Gurriaren ustetan, nahiz eta bost milioi inguru lanik gabe egon, lan merkatua ondo omen dago eta dauden arazoak konpontzeko, horien artean defizit eta zor publikoarenak, BEZa eta kutsadura sortzen duten jardueraren gaineko zergaren eta ondarearen gainekoa igo egin behar omen dira, baita SICAVek, aberatsenen funtsak, ordaintzen duten hutsaren ondorengo ehuneko bata ez omen da nahikoa. Azken finean, jende arruntak jasaten duen BEZ atzerakorra justifikatu besterik ez du egiten ELGak. Ail, zerga neurri horiek konpentsatzeko, enpresarien kotizazioak murriztu egin behar omen dira.

Abagune idealista horrek ezer gutxi esaten du. Izan ere, adibidez, Espainiako Estatuan langabezia tasa garaiena dago, Greziaren ondoren. Gazteen arteko langabezia tasa ehuneko 53koa da. Eskola porrota Europako batz bestekoa baino hiru bider handiagoa da, ikasleriaren ehuneko 23k porrota ezagutzen baitu. Arazo horiek saihestu egiten ditu Gurria jaunak, ez baitira berarentzat eta bere ingurukotentzat inolako kezka. Ahaztu gabe, ebolak ekarriko dizkion ondorio ekonomiko negatiboak.

Dena dela, badirudi Gurriaren ateraldi horiek taberna zuloan eginak bailiran hartu behar direla. Izan ere, egun batzuk lehenago, erakunde berak mezu serioagoak eman zituen: Espainiako Estatuko alokairu maila gehiegi jaitsi dela eta horrek eskariaren gainean eragin ezkorra duela, Alemaniako batez besteko alokairua 2.575 € da, aldiz, Espainakoa 1.634 €, edo EBko batez bestekoaren ehuneko 17 baino apalagoa.

Datu horiek adierazgarriak dira produktibitate mailak alderatzeko, eta horretan espainiar enpresariak lehiakorrak izan nahi badute EBren barruan, badaukate zer ikasia, baita mundu merkatu globalizatuan ere. Baina hori egiteko, enpresari horiek diru publikoa errazegi eskuratzen dute. Arazo guztiok dira *Marca España* hantaz gora jartzen dutenak. ■

